

## Bidegik bide-segurtasuna hobetuko du AP-8 eta GI-20ko lotunean Bilboko norabidean

**7,3 milioi euroko inbertsioa egingo du eta lotuneaz gain bertan dauden azpiegiturak birgaituko ditu eta zarataren aurkako pantailak jarriko ditu**



Gidatzea segurua izatea bermatzea da Bidegiren helburu nagusietako bat. Horren harian, administrazio kontseiluak onartu du Oiartzun eta Errenteria artean AP-8 eta GI-20ko lotunea Bilboko norabidean birgaitzeko proiektua. Eta proiektu honi esker bide-segurtasuna hobetu ahal izango da.

Lotunea 2010.urtean egin zen, hain zuzen ere, bigarren ingurabidea ireki zenean. Osatzen duten erreiek zabalera aldagarria dute, eta ondorioz, 340 metrotako luzeran 3,5 metroko zabalera izatetik 7,00 metroko zabalera izatera pasatzen dira. Aipatutako luzera egungo araudiak ezarritakoa baino txikiagoa da. Gainera, errepidearen zati hau bihurgunean dago eta bide nagusiaren ondoan beste hainbat bide daude. Horrek erabiltzaileei zaildu egiten die jarraitu beharreko norabidea aldeztetik erabakitzen, eta ondorioz, hainbat alditan bapateko mugimenduak egiten dituzte, eta hori bide segurtasunaren kalterako izaten da.

Horrenbestez, Bidegik onartu du Altuna y Uria eta Campezo Obras y Servicios enpresek osatutako UTE delakoari lotune hori birgaitzeko egin beharreko lanak. Eta lan horiekin egungo lotunearen plataforma egokitu eta zabaldu ahal izango da, Gipuzkoako errepidearen ardatz estrategiko honen bide-segurtasuna hobetuz. Lanak 17 hilabetez luzatuko dira, eta autopistan bertan dauden estrukturalak handitzeaz gain, zarataren aurkako pantailak jartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak errepideetako zarataren aurkako ekintza Planak ezarritakoari jarraituz.

Zehatzago, eremu horretan dauden bi azpiko pasoetan (PK 11,740 eta 11,950) hainbat jarduketara egingo dira, baita Oiartzungo ordainlekuaren sarrera eta irteerako lotuneetan zein PK 12,000an dagoen zubibidean ere. Bertan bideak zabalduko dira lotune berrira egokitzeko; Bilboko norabidean dagoen hegala handituko da eta Behobiako norabidekoa ordezkatuko da; euste-sistema aldatuko da; drainatze-sistemak instalatuko dira; eta pantaila akustikoak jarriko dira. Azken hauek Bilboko norabidean eskuineko bazterrean jarriko dira, hortik gertu dauden



etxeak zein bertan dauden hainbat elementu sentikorrek babesteko, eta beti, egun dauden pantaila akustikoei jarraipena emanez.

Bidegik 7,1 milioi euroko inbertsioa egingo du (gehi BEZ) eta enpresa esleipendunak 17 hilabeteko epea izango du errepidearen zati horretako bide-segurtasuna hobetzen lagunduko duen proiektua aurrera eramateko.

Zarautz, 2026-03-03

## Bidegi mejorará la seguridad vial en la bifurcación entre la AP-8 y la GI-20 sentido Bilbao

***Invertirá 7,3 millones de euros con los que además de la propia bifurcación rehabilitará las estructuras existentes e instalará pantallas acústicas***



Garantizar una conducción segura por sus vías es uno de los objetivos principales de Bidegi. En este sentido, el consejo de administración ha aprobado sacar a licitación un proyecto de rehabilitación que permitirá mejorar la seguridad vial en la bifurcación entre la AP-8 y la GI-20 entre Oiartzun y Errenteria, sentido Bilbao.

La bifurcación existente data de 2010, año en el que se puso en marcha el segundo cinturón. Los carriles que la configuran son de ancho variable, que pasa de los 3,5 metros a los 7,00 metros en una distancia de aproximadamente 340 metros. Esta distancia es algo inferior a los 500 metros que la normativa en vigor actualmente indica. Además, se trata de un tramo en curva que cuenta con la presencia de otros viales que transcurren paralelamente a la vía principal, lo que dificulta que las personas usuarias perciban adecuadamente y con la debida antelación la trayectoria que desean seguir, lo que en ocasiones genera maniobras imprevistas o inadecuadas, que generan riesgo para la seguridad vial.

De este modo, Bidegi ha adjudicado a la UTE formada por las empresas Altuna y Uria y Campezo Obras y Servicios las obras que permitirán rehabilitar dicha bifurcación de modo que se pueda adecuar y ensanchar la plataforma actual mejorando la seguridad de una bifurcación, que es estratégica para el eje viario guipuzcoano. La actuación, que tendrá una duración de 17 meses, contempla además la ampliación de las estructuras que se encuentran en el tronco de la autopista, la instalación de pantallas acústicas de conformidad con el Plan de acción frente al ruido en las carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En concreto, se actuará sobre los dos pasos inferiores existentes (en los PK 11,740 y 11,950), , así como sobre los ramales de entrada y salida de la estación de cobro de Oiartzun, así como sobre el viaducto del PK 12,000, que verán cómo se ensanchan calzadas para adecuarse a la nueva bifurcación, así como la ampliación del voladizo en sentido Bilbao, la reconstrucción del



voladizo sentido Behobia, la sustitución del sistema de contención, la instalación de sistema s de drenaje, así como la colocación de pantallas acústicas. Estas últimas se instalarán en el margen derecho de la vía sentido Bilbao, protegiendo el frente urbano y los elementos sensibles que se encuentran en la zona, y a su vez, dando continuidad a las pantallas existentes.

Bidegi realizará una inversión de 7,3 millones de euros más IVA, y la empresa que resulte adjudicataria tendrá un plazo de ejecución de 17 meses para llevar a cabo un proyecto que redundará en la mejora de la seguridad vial del tramo.

Zarautz, 2026-03-03